

Edorta Arana

EHUKO IRAKASLEA

Legeak eta logoak

Kataluniako irrati-telebista autonomikoaren legea berritzeko eztabaidetan hasiak dira bertako legebiltzarrean. Urtarriletik hona ugari dira egin dituzten tramiteak: ponentziarako jendea izendatu, eztabaidei ekin, testua idatzi, konparezentzien egitaraua erabaki eta abar. Luze jo du gaiak eta ematen duenez hala egingo du hemendik aurrera ere.

Desadostasun ugari azaleratu omen dira Kataluniako legebiltzarrean, guzti-guztiek garrantzi handikotzat duten lege berriaren tramitazioan.

Orain artekotik, eta legearen mui-nean sartu barik, atenzioa deitu didan azalekoa dirudien elementu bat izen aldaketarena da. Lege berriaren esku-tik, hango EITBk Corporació Catalana de Mitjans Audiovisuals izena hartuko du. Eta ez da txantxetako aldaketa. Izan ere, dagoeneko, “irradi-telebista” etiketak bere zereginaren zati bat besterik ez du bere baitan hartzen. Aspaldi irratiaren eta telebista-ren mugak zabaltzen hasiak ziren eta zaila zen, zaila da, Internetek eta teknologia berriek ahalbidetzen dituen ikus-entzunezko zerbitzu eta ikuspegi berriak izendatzea.

Gurean ere, deitura aldaketetan sartu aurretik ere, irrati-telebistagintzaren inguruko eztabaida sakon baten beharrean gaudela dirudi. Katalunian ez bezala, hemen ikus-entzunezko zerbitzu



ALBERTO ELOSILGI

publikoaren eta, berez, kultur industria honen zutabe nagusienak jarri gabe ditugu.

EAEEn, Ikus-entzunezko Legearena bideratu gabe dago. Gainera, Nafarroan, Katalunian edo Frantziako Estatuan ez bezala Ikus-entzunezko Kontseilurik ez daukagu. Eta orokorrean, ikus-entzunezkoaren egitura osoaren definizioa egin gabe dago, itxura guztien arabera.

Horregatik, Gasteizko Legebiltzarrean, EITBren legearen artikuluren batzuk gaurkotu behar zirela esatetik, lege osoa aldatu gura izatera egin dute salto, berri pozgarria da. Baina, aukera hori aprobetxa daiteke harago joateko, eta ikus-entzunezkoen inguruko hausnarketa sakona egiteko.

Dagoenaren kudeaketa eta bideragarritasun planak egitea baino kome-nigarriagoa iruditzen zait etorkizun-ean nahi denaren diseinua egiten hastea. EITBri izena aldatzea baino, interesgarriagoa iruditzen zait kultur-industria honen oinarriak, egoera eta geroa eztabaidatzen hastea.

Ezinezkoa da beste 25 urterako irrati-telebista publikoa arautuko duen lege bat onartzea, ate joka ditugun berrikuntza teknologiko, sozial eta kulturalak kontuan hartu barik. Eta hor, beharrezkoa zaigu malgua, freskoa, integratzailea eta ausarta izango den ikus-entzunezko hedabideak bultzatuko dituen agente publikoa, lehengo EITB. ■

« Katalunian ez bezala,
hemen ikus-entzunezko zerbitzu
publikoaren eta, berez, kultur
industria honen zutabe
nagusienak jarri gabe ditugu »

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Ere izango dugu derbi-rik. Asko da. Eta Anoetako inguruak okatuko dira eibartarrei zor. Eus-

koTrenak ordutegi berezia eskainiko du joan-ettorrian: Ipuruatik Anoetara, Anoetatik Ipuruara. Bartzelonako elastikoak ikusiko dira baina Fagoaga, Alaña, Eizagirre eta gainerakoen sorbaldak dotoretuz. Tailerretako kultura multinazionalen finantzarioren orde. Zango lana espekulazioaren aurka. Piztifikatoria muntatua dute Zubieta aldean pizsina marrazoek, bisigua, legatza eta antxoa falta ditugun garaian, Gasteizko aireportua Kantauri. Eta Zubietako frigorifikoa konjeladorea bilakatuz,

Ipuruan

bertan hazitako ale freskoak gorde dituzte ustel usaina duten urrutiko-ak Anoetako restauranteko menuetan hamabostero agerian erakutsiz.

Ez dira plater jangarriak izan eta kamareroek ihes egin dute nagusiarekin batera sukaldea hustuz. Berriak behar omen dira, deskonjeltutako aleak prestatu eta fundamen-tuzko oturuntzak paratzeko gai izango direnen beharra omen dago. LFPra itzultzeko lehen lana, pizsina marrazo-ak desagerraraztea da, guztia irensteko sortutakoak, Reala ataka hontara ekarri dutenak. Hau gabe inor gutxi ingura-tuko da Anoetako banketetara, bestela ere soziedadetan ongi asko jaten baita eta ez da sukaldaririk falta. ■